# UPV/EHUko ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia 2024(PIF)

## Ohiko galderak (FAQs)

2024/06/19an eguneratua

**OHAR GARRANTZITSUA:** *Kontuan hartuta eskarien kopurua handia dela, egin ezazue kontsulta, mesedez, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako (aurrerantzean IAE) pertsonalarekin harremanetan jarri aurretik ohiko galderen zerrenda honetan.*

Kontsultari erantzunik aurkitu ezean dokumentu honetan, eskatzaileek igz.pif-eskaerak@ehu.eus helbide elektronikora jo ahal izango dute, "**PREDOC 2024**" adieraziz mezuaren gaian.

***Kontsulta guztiei erantzuteko, helbide elektroniko honetara bakarrik igorri, mezuak, mesedez.***

ESKATZAILEAREN ESKAKIZUNAK 4
Titulazioaren eskakizunak: 4
Zein dira doktoregoan sartzeko baldintzak? 4
Beharrezkoa al da masterraren ziurtagiri akademikoa aurkeztea? 4
Nire eskaera aurkez dezaket oraindik masterreko ikasketak hasi ez baditut? 5
Doktoretza egiteko aukera ematen duen titulazio bat baino gehiago badut, bi titulazioetatik zein baloratzen da eskabidean? 5
2 urteko master bat egiten ari naiz eta lehen mailan nago eta data horietarako 60 kreditu izango nituzke. 5
Europako gradu/master titulua lortu dut. Beharrezkoa al da titulu homologatua izatea UPV/EHUko doktorego-programa batean matrikulatu ahal izateko? 5
Zer data hartzen da kontuan 3.1.a.i oinarriaren ondorioetarako, doktoregora sartzeko ematen didan tituluak amaiera-data eta bidalketa-data desberdinak baditu? 5
Doktorego programa: 5
Derrigorrezkoa al da doktorego programan aurrez izena ematea 2024an? 5
Deialdia ebatzi aurretik ordaindu behar al dut doktoregoko matrikula? 5
Zer gertatzen da doktorego eskolako matrikula ordaintzen badut eta ondoren laguntza ukatzen badidate? 5
Nola egin dezaket aurretiko izen ematea doktorego programa batean? (3.1.c oinarria) 5
Eskabidea aurkezteko unean doktorego-programan matrikulatuta nagoela egiaztatu behar al dut? 6
Zein agirik egiaztatzen du doktorego-programan aurrez izena eman dela? 6
Noiz hasten da doktorego programan aurreinskripzioa egiteko epea? 6
Hizkuntzak: 6
7.1.2 eta 7.1.3 oinarrien arabera, Ebaluazio-irizpideak: Hizkuntzak jakitea. Zeintzuk dira onartutako titulazioak? 6

Euskara jakitea ezinbestekoa al da deialdi honetan parte hartzeko? 6
Beharrezkoa al da euskararen ezagutza-ziurtagiria aurkeztea Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 dekretuak eragindako baliokidetzen kasuan? 6
Atxikitako Ikastegia: 6
Laguntza eska daiteke UPV/EHUkoa ez den zentro batean tesia egiteko, adibidez, unibertsitatetik kanpoko enpresa edo ikerketa-zentro batean? 6
Nola jakin dezaket laguntza lortuz gero atxiki nahi dudan Institutua UPV/EHUren parte den? 6
Deialdian parte har dezaket lizentziaturaren edo graduaren espediente akademikoan batez besteko nota 6,5 puntu baino gutxiagokoa badut? 6
III. eta IV. ereduetan, Espainiar nazionalitatea badut eta frantseseko ezagutza-ziurtagiria aurkezten badut, zein irizpideren arabera baloratzen da ziurtagiri hori? 7
Egonaldia atzerrian: 7
Zenbat hilabetez finantzatzen du laguntza atzerrian egindako egonaldiak? 7
Atzerriko egonaldiaren hasiera- eta amaiera-datak? 7

TESI ZUZENDARIAK 8
Zenbat tesi-zuzendarik abalatu dezakete nire eskaera? 8
UPV/EHUrekin loturarik ez duen pertsona batek zuzendu al dezake nire tesia? 8
Deialdi honetako modalitate bakoitzean parte hartzeko zuzendari desberdinak aukera ditzaket? 8
Zuzendari berak eskaera bat baino gehiago abalatu al ditzake deialdi honetan? 8
Zer baldintza bete behar ditu nire zuzendariak zuzendari gaztearen 5 puntuak eskuratu nahi baditut? 8
Nola egiazta dezaket nire tesi-zuzendarietako batek lanaldi osoko kontratu bat duela UPV/EHUrekin eta defendatu den doktorego-tesi bat baino ez duela zuzendu? 8
Ramón y Cajal ikertzailea naiz UPV/EHUn. 4.2.a.i oinarrian jasotako lotura-baldintza betetzen dut deialdi honetan eskaera bat abalatzeko? 9
UPV/EHUko atxiki zuzendaria naiz. Betetzen al dut 4.2.a.i oinarrian jasotako lotura-baldintza deialdi honetako eskaera bat abalatzeko? 9
UPV/EHUko atxiki zuzendaria naiz. Betetzen al dut 7.1.6 oinarrian jasotako lotura-baldintza, zuzendari gaztearen merezimenduaren 5 puntuak lortzeko? 9
ESKAERAK AURKEZTEA 10
Nola sar naiteke UPV/EHUren erregistro elektronikoan? 10
Zer identifikazio eta sinadura-bitarteko onartzen ditu UPV/EHUko erregistro elektronikoak? 10
BakQ daukat, sar naiteke harekin erregistro elektronikoan eta nire eskaera aurkeztu? 10
Aurkez al dezaket nire eskaera aplikazio edo posta elektroniko bidez? 10

Non daude UPV/EHUko erregistro bulegoak eta zein da bertako ordutegia? 10
IAEko pertsonalak erregistratu ahal du nire eskaria? 10
Arazoak ditut erregistroan, ezin dut elektronikoki sinatu. 10
Zer da sinadura digitala? 10

FORMULARIOA 11
I. eta II. modalitateetan lehentasuna ematea formularioan 11
Zein formatutan eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut eskabide-orria? 11
Zein formatutan eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut memoria? 11
Zein formatu eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut CVa? 11
Memoria-eredu bera al da 4 modalitateetarako? 11
Deialdian adierazten da euskarazko eskaerak gaztelaniara itzuliko direla. Nire itzulpena aurkez dezaket? 12
Zein kasutan aurkeztu behar da ANECAren batez besteko notaren ziurtagiria? 12
CVan alegatutako merezimendu guztiak egiaztatzen dituen dokumentazioa erantsi behar dut? 12
Ikerketa-jardueraren ondorio etikoak: 12
Etika Batzordearen aldeko txostena erantsi behar dut eskaera aurkezten den unean? 12

PROIEKTUAREN MEMORIA 13
Nahitaez markatu behar al dut GJH bat? 13

DEIALDIAREN TRAMITAZIOA 14
Nola jakinaraziko zaie eskatzaileei ebaluaziora onartu eta baztertutako eskarien behin behineko zerrenda argitaratu dela? 14

## ESKATZAILEAREN ESKAKIZUNAK

### Titulazioaren eskakizunak:

### Zein dira doktoregoan sartzeko baldintzak?

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiaren 2024ko apirilaren 25eko EBAZPENA EHAAn argitaratu ondoren, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko doktoregoko ikasketa ofizialak kudeatzeko araudiak, 5. artikuluan, honako hau dio:

5. artikulua.– Doktoregoan sartzeko baldintzak.

1.– Orokorrean, doktorego programa ofizial batera sartzeko izateko, graduko titulua edo baliokidea eta master titulua edo baliokidea izan behar da, eta bi titulazio horien artean gutxienez 300 ECTS kreditu eduki behar dira gaindituta.

2024/2766 (30/2)

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA 111. zk.

2024ko ekainaren 7a, ostirala

2.– Programan sar daitezke, era berean, atal hauetakoren batean zehazten diren baldintzak betetzen dituztenak:

a) Espainiako unibertsitate titulu ofizialak edo Espainiako titulu baliokideak izatea, titulazio horien artean gutxienez 300 ECTS kreditu gaindituta izatea, eta, horretaz gain, Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 3. maila egiaztatzea.

b) Europako Unibertsitate Eremuko (EUE) atzerriko hezkuntza sistemetako titulu bat izatea –homologatuta izan zein ez–, Kualifikazioen Europako Esparruko 7. mailakoa, baldin eta titulu horrek jatorrizko herrialdean doktoregorako sarbidea ematen badu Bide horretatik sartzeak ez dakar titulua homologatzea: interesdunari doktoregoan sartzeko baino ez zaio onartuko, hau da, onarpenak ez du bestelako ondoriorik izango.

c) EUEtik kanpoko atzerriko hezkuntza sistemetako titulu bat izatea –homologatuta izan zein ez–, baldin eta aurretik frogatzen bada, Graduondoko Batzordeak ezarritako prozeduraren bitartez, titulu horrek Espainiako unibertsitate master ofizial baten prestakuntzaren parekoa egiaztatzen duela, eta jatorrizko herrialdean doktoregorako sarbidea ematen duela. Bide horretatik sartzeak ez dakar titulua homologatzea: interesdunari doktoregoan sartzeko baino ez zaio onartuko, hau da, onarpenak ez du bestelako ondoriorik izango.

d) Beste doktore titulu bat izatea.

e) Unibertsitateko titulua izanik, Osasun Zientzietako espezialitate bat egiteko plaza bat lortuta izatea –dagokion proba gaindituriк–, eta programa horretan gutxienez bi urte egin izana ebaluazio positiboaz.

### Beharrezkoa al da masterraren ziurtagiri akademikoa aurkeztea?

Doktoretza egiteko aukera ematen sartzeko beharrezkoa den ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da, 3.1a oinarrian azaldutakoaren arabera, UPV/EHUn egindako titulazioetarako izan ezik.

**Nire eskaera aurkez dezaket oraindik masterreko ikasketak hasi ez baditut?**

Ez, zure gradu-ikasketek doktoretzarako zuzeneko sarbidea ematen dutenean izan ezik.

**Doktoretza egiteko aukera ematen duen titulazio bat baino gehiago badut, bi titulazioetatik zein baloratzen da eskabidean?**

Datei dagokienez, doktoretzarako sarbidea ematen duen lehen titulazioa hartuko da kontuan (3.1.a oinarria).

**2 urteko master bat egiten ari naiz eta lehen mailan nago eta data horietarako 60 kreditu izango nituzke.**

Ez.

**Europako gradu/master titulua lortu dut. Beharrezkoa al da titulu homologatua izatea UPV/EHUko doktorego-programa batean matrikulatu ahal izateko?**

Deialdi honetan ez da baldintza titulua homologatuta egotea, baina BAI baldintza da kontratazioa formalizatzeb den egunean matrikulatuta egotea (8. oinarria).
https://www.ehu.eus/eu/web/doktoregoa/tituluak-eta-prozedurak/atzerriko-tituluen-baliokidetasuna/dokumentuak-legeztatzea

**Zer data hartzen da kontuan 3.1.a.i oinarriaren ondorioetarako, doktoregora sartzeko ematen didan tituluak amaiera-data eta bidalketa-data desberdinak baditu?**

Kontuan hartuko da unibertsitate-tituluaren amaiera-data, ez titulua eman zenekoa.

## Doktorego programa:

**Derrigorrezkoa al da doktorego programan aurrez izena ematea 2024an?**

Bai.

**Deialdia ebatzi aurretik ordaindu behar al dut doktoregoko matrikula?**

Ez.

**Zer gertatzen da doktorego eskolako matrikula ordaintzen badut eta ondoren laguntza ukatzen badidate?**

UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2024ko apirilaren 25eko Ebazpenaren 8.7 artikuluaren arabera (ebazpen horren bidez argitaratu zen UPV/EHUko doktorego-ikasketa ofizialak kudeatzeko erregelamendua), itzuli egingo dira doktorego-ikasketak egiteko eskatutako laguntza edo kontratua ukatzeagatik ordaindutako prezio publikoak.

**Nola egin dezaket aurretiko izen ematea doktorego programa batean? (3.1.c oinarria)**

Doktorego Eskolarekin harremanetan jar zaitezke, doke@ehu.eus edo jarraibideak kontsultatu ahal dituzu zuzenean Dokorego Eskolaren webgunean:
https://www.ehu.eus/eu/web/doktorego-eskola/doktoregoa

**Eskabidea aurkezteko unean doktorego-programan matrikulatuta nagoela egiaztatu behar al dut?**

Ez. Doktorego-programan aurrez izena emanda dagoela egiaztatu behar da (3.1.c oinarria).

**Zein agirik egiaztatzen du doktorego-programan aurrez izena eman dela?**

UPV/EHUko doktorego-programan aurrez izena emateko, esteka honetara jo behar da: https://www.ehu.eus/es/web/doktorego-eskola/doctorado-preinscripcion-admision?gad_source=1&gclid=EAIaIQobChMIjZTo4eW0hgMVfZCDBx21mShsEAAYASAAEgJ8DvD_BwE (Base 6.2.c)

**Noiz hasten da doktorego programan aurreinskripzioa egiteko epea?**

Epea 2024/06/24an irekiko da.
https://www.ehu.eus/eu/web/doktoregoa/matrikula/matrikula-egutegia

**<u>Hizkuntzak:</u>**

**7.1.2 eta 7.1.3 oinarrien arabera, Ebaluazio-irizpideak: Hizkuntzak jakitea. Zeintzuk dira onartutako titulazioak?**

Hurrengo estekan, onartutako titulazioak daude eskuragarri.

**Euskara jakitea ezinbestekoa al da deialdi honetan parte hartzeko?**

II. MODALITATEAN parte hartzeko baldintza da, eta I. MODALITATEAN merezimendu gisa hartzen da.

**Beharrezkoa al da euskararen ezagutza-ziurtagiria aurkeztea Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 dekretuak eragindako baliokidetzen kasuan?**

Bai, kasu horretan eskatzaileak dagokion ziurtagiria ere aurkeztu beharko du.

**<u>Atxikitako Ikastegia:</u>**

**Laguntza eska daiteke UPV/EHUkoa ez den zentro batean tesia egiteko, adibidez, unibertsitatetik kanpoko enpresa edo ikerketa-zentro batean?**

Ez.

**Nola jakin dezaket laguntza lortuz gero atxiki nahi dudan Institutua UPV/EHUren parte den?**

Esteka honetan kontsulta dezakezu institutuen zerrenda:
https://www.ehu.eus/eu/web/ikerkuntza/institutuak

**Deialdian parte har dezaket lizentziaturaren edo graduaren espediente akademikoan batez besteko nota 6,5 puntu baino gutxiagokoa badut?**

Baldin eta, batez besteko nota 6.5 puntutik beherakoa duen titulazioa bada, mozteko nota 6 puntura jaitsiko da (3.1.b oinarria): Finantza eta Aseguruetako gradua, Meatzaritza eta Energia

Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua, Ingeniaritza Elektrikoko Gradua, Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Gradua.

**III. eta IV. ereduetan, Espainiar nazionalitatea badut eta frantseseko ezagutza-ziurtagiria aurkezten badut, zein irizpideren arabera baloratzen da ziurtagiri hori?**

Kasu horretan, hizkuntza 7.1 oinarriko 4. irizpidearen arabera bakarrik ebaluatuko da.

## Egonaldia atzerrian:

**Zenbat hilabetez finantzatzen du laguntza atzerrian egindako egonaldiak?**

Deialdian ezarritako gutxienekoa finantzatuko da (3 hilabete), egonaldiaren iraupena luzeagoa izan arren (5.4 oinarria).

**Atzerriko egonaldiaren hasiera- eta amaiera-datak?**

Data gutxi gorabeherakoa izango da, kontratuaren hasiera-data ere ez baitakigu.

# TESI ZUZENDARIAK

### Zenbat tesi-zuzendarik abalatu dezakete nire eskaera?

1 eta 3 zuzendari bitartean, I eta II modalitateetan.
2 tesi-zuzendari, III. eta IV. modalitatetan. Kasu horietan, pertsona batek UPV/EHUko kide izan beharko du nahitaez, eta besteak, berriz, dagokion tutorekidetzako unibertsitatekoa.

### UPV/EHUrekin loturarik ez duen pertsona batek zuzendu al dezake nire tesia?

Bai, baina kasu honetan ezinbestekoa izango litzateke gutxienez bi zuzendari izatea. Horietako batek 4.2.a. oinarrian jasotako baldintza GUZTIAK bete behar ditu.

### Deialdi honetako modalitate bakoitzean parte hartzeko zuzendari desberdinak aukera ditzaket?

Ez.

### Zuzendari berak eskaera bat baino gehiago abalatu al ditzake deialdi honetan?

Ez. Tesi-zuzendariek ezingo dute deialdi honetan eskaera bat baino gehiago abalatu. (4.2 oinarria)

### Zer baldintza bete behar ditu nire zuzendariak zuzendari gaztearen 5 puntuak eskuratu nahi baditut?

Adierazitako puntuazioa lortzen da tesi-zuzendarietako batek, gutxienez, **baldintza HAUEK GUZTIAK** betetzen dituenean eskabideak aurkezteko unean (7.1 oinarria, 6.irizpidea:

1. Aldez aurretik defendatutako doktorego tesi bat baino gehiago zuzendu ez izana. Erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu beharko da baldintza hori, eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera.
2. UPV/EHUrekin lanaldi osoko kontratua izatea laguntza gauzatzen den aldi osoan.
3. Gainera, 4.2.a.ii oinarrian ezarritako baldintzak betetzea.

### Nola egiazta dezaket nire tesi-zuzendarietako batek lanaldi osoko kontratu bat duela UPV/EHUrekin eta defendatu den doktorego-tesi bat baino ez duela zuzendu?

Ez da beharrezkoa izango erantzukizunpeko adierazpenaren dokumentazio gehigarririk aurkeztea: https://www.ehu.eus/es/web/ikerketaren-kudeaketa/-/pif-upv/ehu-2024

- PREDOC24_Decla. Responsable_Persona Directora Jóven)
- Zuzendari gaztea ez bada doktorego-tesia garatuko den UPV/EHUko doktorego-programako kide, batzorde akademikoaren erantzukizunpeko adierazpena beharko da (PREDOC24_Decla. Responsable Com. Academ. eredu normalizatua).

**Ramón y Cajal ikertzailea naiz UPV/EHUn. 4.2.a.i oinarrian jasotako lotura-baldintza betetzen dut deialdi honetan eskaera bat abalatzeko?**

Bai, gaur egun UPV/EHUrekin duzun egungo loturak tesi-zuzendari izateko aukera ematen dizu deialdi honetako eskaera batean.

**UPV/EHUko atxiki zuzendaria naiz. Betetzen al dut 4.2.a.i oinarrian jasotako lotura-baldintza deialdi honetako eskaera bat abalatzeko?**

Bai, gaur egun UPV/EHUrekin duzun egungo loturak tesi-zuzendari izateko aukera ematen dizu deialdi honetako eskaera batean.

**UPV/EHUko atxiki zuzendaria naiz. Betetzen al dut 7.1.6 oinarrian jasotako lotura-baldintza, zuzendari gaztearen merezimenduaren 5 puntuak lortzeko?**

Gazte merezimenduaren 5 puntuak lortu ahal izateko, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egon beharko duzu.

# ESKAERAK AURKEZTEA

## Nola sar naiteke UPV/EHUren erregistro elektronikoan?

Sakatu esteka hau: https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico

## Zer identifikazio eta sinadura-bitarteko onartzen ditu UPV/EHUko erregistro elektronikoak?

- Izenpek emandako ziurtagiri digitalak, UPV/EHUren langile publikoaren ziurtagiria barne.DNI electrónico
- NAN elektronikoa.
- FNMT Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiriak.

  Ziurtagiri bakoitzak bere instalazio programa behar du:
  - Izenpe (Windows, Linux, MacOS)
  - DNIe (Windows, Linux, MacOS)
  - FNMT (Windows, Linux, MacOS)
- Zerbitzu elektronikoen emaileen ziurtagiri gehiago.

## BakQ daukat, sar naiteke harekin erregistro elektronikoan eta nire eskaera aurkeztu?

Bai. BakQ erabiltzeko, aldez aurretik txartel birtualaren aplikazioa instalatu behar da (Windows, MacOS).

## Aurkez al dezaket nire eskaera aplikazio edo posta elektroniko bidez?

Ez. Salbuespen gisa, eta **Espainiako lurraldean bizi ez diren hautagaiek** ez beste inork aurkeztu ahal izango du eskabidea posta elektronikoz (deialdiaren 6.2 oinarrian eskatutako dokumentazio guztia, PDF formatuan), solicitudes-pif.dgi@ehu.eus helbidera bidaliz, gaian "PREDOC 2024" adierazita (6.1 Oinarria)

## Non daude UPV/EHUko erregistro bulegoak eta zein da bertako ordutegia?

Erregistro-bulegoei buruzko informazio guztia esteka honetan kontsulta daiteke:
https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia

## IAEko pertsonalak erregistratu ahal du nire eskaria?

Ez. Eskariak erregistro moduan jarduteko gaituta diren tokietan aurkeztu behar dira:
Erregistro Elektronikoa, UPV/EHUren erregistro bulegoak, Sektore publikoa osatzen duen edozein erakundetako erregistroetarako arreta bulegoetan edo postako edozein bulego

## Arazoak ditut erregistroan, ezin dut elektronikoki sinatu.

CAUrekin harremanetan jar zaitezke edo jarraitu esteka honetan aurkituko dituzun jarraibideei.
https://egoitza.ehu.eus/eu/soporte
Eskaera aurkezten hasi aurretik sinadura elektronikoa probatzea gomendatzen da.

## Zer da sinadura digitala?

Honako era hauetako batean egindako sinadurak dira digitalak: NAN-e, administrazio publikoek aintzatetsitako ziurtagiri elektronikoa eta abar.

FORMULARIOA

## I. eta II. modalitateetan lehentasuna ematea formularioan

1 Adibidea: *Nire lehen aukera **II modalitatea** da, eta bigarrena **I modalitatea**. Nola adieraziko dut formularioan?*

| I eta II.MODALITATEA MODALIDAD I y II | | | | |
|---|---|---|---|---|
| I.Mod. / Mod.I (I eta II modalitateak aukeratuz gero lehenetsi / *En caso de optar a las 2 modalidades I y II, priorizar)* | ☐ | Lehenetsi 1 / Prioridad 1 | ☒ | Lehenetsi 2 / Prioridad 2 |
| II.Mod. / Mod.II (I eta II modalitateak aukeratuz gero lehenetsi / *En caso de optar a las 2 modalidades I y II, priorizar)* | ☒ | Lehenetsi 1 / Prioridad 1 | ☐ | Lehenetsi 2 / Prioridad 2 |

2 Adibidea: *Nire lehen aukera **I modalitatea** da, eta bigarrena **II modalitatea**. Nola adieraziko dut formularioan?*

| I eta II.MODALITATEA MODALIDAD I y II | | | | |
|---|---|---|---|---|
| I.Mod. / Mod.I (I eta II modalitateak aukeratuz gero lehenetsi / *En caso de optar a las 2 modalidades I y II, priorizar)* | ☒ | Lehenetsi 1 / Prioridad 1 | ☐ | Lehenetsi 2 / Prioridad 2 |
| II.Mod. / Mod.II (I eta II modalitateak aukeratuz gero lehenetsi / *En caso de optar a las 2 modalidades I y II, priorizar)* | ☐ | Lehenetsi 1 / Prioridad 1 | ☒ | Lehenetsi 2 / Prioridad 2 |

3 Adibidea: ***I. modalitatea** bakarrik interesatzen zait*

| I eta II.MODALITATEA MODALIDAD I y II | | | | |
|---|---|---|---|---|
| I.Mod. / Mod.I (I eta II modalitateak aukeratuz gero lehenetsi / *En caso de optar a las 2 modalidades I y II, priorizar)* | ☒ | Lehenetsi 1 / Prioridad 1 | ☐ | Lehenetsi 2 / Prioridad 2 |
| II.Mod. / Mod.II (I eta II modalitateak aukeratuz gero lehenetsi / *En caso de optar a las 2 modalidades I y II, priorizar)* | ☐ | Lehenetsi 1 / Prioridad 1 | ☐ | Lehenetsi 2 / Prioridad 2 |

*Ejemplo 4*: ***II. modalitatea** bakarrik interesatzen zait*

| I eta II.MODALITATEA MODALIDAD I y II | | | | |
|---|---|---|---|---|
| I.Mod. / Mod.I (I eta II modalitateak aukeratuz gero lehenetsi / *En caso de optar a las 2 modalidades I y II, priorizar)* | ☐ | Lehenetsi 1 / Prioridad 1 | ☐ | Lehenetsi 2 / Prioridad 2 |
| II.Mod. / Mod.II (I eta II modalitateak aukeratuz gero lehenetsi / *En caso de optar a las 2 modalidades I y II, priorizar)* | ☒ | Lehenetsi 1 / Prioridad 1 | ☐ | Lehenetsi 2 / Prioridad 2 |

### Zein formatutan eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut eskabide-orria?

Formularioa ingelesez aurkeztuko da lehentasunez (PDF formatuan), baina EAEko edozein hizkuntza ofizialetan ere aurkez daiteke, euskaraz eta gaztelaniaz.

### Zein formatutan eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut memoria?

Memoria ingelesez aurkeztuko da lehentasunez (PDF formatuan), baina EAEko edozein hizkuntza ofizialetan ere aurkez daiteke, euskaraz eta gaztelaniaz.
2. modalitatearen berariazko kasuan, memoria euskaraz aurkeztu beharko da.

### Zein formatu eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut CVa?

Deberá presentarse el Currículum Vitae Normalizado ( CVN) en PDF y en inglés.

### Memoria-eredu bera al da 4 modalitateetarako?

Bai.

**Deialdian adierazten da euskarazko eskaerak gaztelaniara itzuliko direla. Nire itzulpena aurkez dezaket?**

Bai.

**Zein kasutan aurkeztu behar da ANECAren batez besteko notaren ziurtagiria?**

Eskatzaileak ikasketak zatika edo osorik atzerrian egin dituenean. Esteka honen bidez eska daiteke:
https://sede.educacion.gob.es/sede/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=818

**CVan alegatutako merezimendu guztiak egiaztatzen dituen dokumentazioa erantsi behar dut?**

Ez. Izan ere, aurkeztutako eskabideen kopurua dela eta, 6.2 oinarrian adierazitakoaz gain, dokumentazio gehigarririk ez erregistratzeko eskatzen zaie hautagaiei, ez baita ebaluatuko.

## Ikerketa-jardueraren ondorio etikoak:

**Etika Batzordearen aldeko txostena erantsi behar dut eskaera aurkezten den unean?**

Ez, baina ezinbestekoa da memorian (9. orrialdea) zure ikerketak dituen inplikazio etikoak adieraztea eta xehetasunak zehaztea.
Azkenean laguntza ematen badizute, 8.1.g. oinarrian jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko duzu.

PROIEKTUAREN MEMORIA

**Nahitaez markatu behar al dut GJH bat?**

GUTXIENEZ, GJH bat nahitaez markatu behar da, proposatzen den proiektuarekiko harreman-mailaren arabera.

1 Adibidea: Nire proiektuarekin lotura handiena duen GJHa ODS1 da, eta neurri txikiagoan ODS4. Nola adierazten dut proiektuaren memorian?

| GIH zbkia/Nº ODS | IZENBURUA / TITULO | LEHENESTE MAILA PRIORIZACIÓN |
|---|---|---|
| 1 GIH/ODS 1 | POBREZIA DESAGERTZEA / FIN DE LA POBREZA | 1 |
| 2 GIH/ODS 2 | GOSERIK EZ IZATEA / HAMBRE | |
| 3 GIH/ODS 3 | OSASUNA ETA ONGIZATEA / SALUD Y BIENESTAR | |
| 4 GIH/ODS 4 | KALITATE ONEKO HEZKUNTZA / EDUCACIÓN DE CALIDAD | 2 |

2 Adibidea: Nire proiektuarekin lotura handiena duen GJH 1 da, eta, neurri txikiagoan, GJH4 eta GJH7. Nola adierazten dut proiektuaren memorian?

| GIH zbkia/Nº ODS | IZENBURUA / TITULO | LEHENESTE MAILA PRIORIZACIÓN |
|---|---|---|
| 1 GIH/ODS 1 | POBREZIA DESAGERTZEA / FIN DE LA POBREZA | 1 |
| 2 GIH/ODS 2 | GOSERIK EZ IZATEA / HAMBRE | |
| 3 GIH/ODS 3 | OSASUNA ETA ONGIZATEA / SALUD Y BIENESTAR | |
| 4 GIH/ODS 4 | KALITATE ONEKO HEZKUNTZA / EDUCACIÓN DE CALIDAD | 2 |
| 5 GIH/ODS 5 | GENERO BERDINTASUNA / IGUALDAD DE GÉNERO | |
| 6 GIH/ODS 6 | EDATEKO URA ETA SANEAMENDUA / AGUA LIMPIA Y SANEAMIENTO | |
| 7 GIH/ODS 7 | ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ KUTSATZAILEA / ENERGÍA ASEQUIBLE Y NO CONTAMINANTE | 3 |
| 8 GIH/ODS 8 | LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA / | |

3 Adibidea: Nire proiektuarekin lotura handiena duen GJH 2GJH da. Nola adierazten dut proiektuaren memorian?

| GIH zbkia/Nº ODS | IZENBURUA / TITULO | LEHENESTE MAILA PRIORIZACIÓN |
|---|---|---|
| 1 GIH/ODS 1 | POBREZIA DESAGERTZEA / FIN DE LA POBREZA | |
| 2 GIH/ODS 2 | GOSERIK EZ IZATEA / HAMBRE | 1 |
| 3 GIH/ODS 3 | OSASUNA ETA ONGIZATEA / SALUD Y BIENESTAR | |
| 4 GIH/ODS 4 | KALITATE ONEKO HEZKUNTZA / EDUCACIÓN DE CALIDAD | |

## DEIALDIAREN TRAMITAZIOA

**Nola jakinaraziko zaie eskatzaileei ebaluaziora onartu eta baztertutako eskarien behin behineko zerrenda argitaratu dela?**

IAEk jakinaren gainean jarriko ditu eskatzaileak eskaria egiteko inprimakian harremanetarako adierazi den posta elektronikoen bidez.
Hala ere, zerrenda webgunean argitaratuta, legeak agindutako jakinarazpen ondorio guztiak izango ditu, eta IAEk ez du bere gain hartuko adierazitako helbide elektronikoetan ez jaso izana eta eskatzailearen obligazioa izango da aldian-aldian deialdiaren inguruko informazio berria jaso ote duen egiaztatzea.
https://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/-/pif-upv/ehu-2024